

→ AMESLARIOK... ZER BERRI?

ASTEKARIA: 44. atala

DATA: 2025/06/20

GUREAN

OLINPIADAK

Tradizioari jarraituz, atzo Olinpiadak ospatu genituen ikastolan. Gure artean hobeto ezagutzeko eta kirol ezberdinez disfrutatzeko aitzakia ederra bihurtu da. Handiek eta txikiek egin zuten bat eta primeran pasatu zuten elkarrekin. Goizean zehar ekintza ugari egiteko aukera izan zuten ikasleek: erreleboak, harri, orri, ar, armiarmaren sarea, sokatira, lokots bilketa, 3-ilaran eta banderatz. Giro onenean eman diogu bukaera ikasturte honi. Gaur, ikastolatik kanpo ibili dira hainbat irakasle eta ikasle. Batzuk Hernanira joan dira eta beste batzuk Oriola, Aiara eta Getariara.... SEGI BIZITZAZ GOZATZEN OPORRETAN!

GURE INGURUAN



UDAKO SOLSTIZIOA - PROXIMITY AT CHILLIDA LEKU

NON: CHILLIDA LEKU - HERNANI
NOIZ: EKAINAK 20, 19.30EAN

Chillida Lekuk Proximity aurkeztuko du, Strijbos & Van Rijswijken paisaia-opera, udako solstizioa dela eta museorako bereziki egokitua. Konpositore holandarrek museoko zelaia eraldatu dituzte Eduardo Chillidaren obran inspiratutako soinu esperientzia inguratzailearekin. Emanaldia Carolina Luquin eta Haizea Muñoz soprano euskaldunek, Eñaut Elorrieta, eta David Chalmin musikari frantziarrak osatuko dute. Publikoa paseatzera, hausnartzera eta espazioa modu paregabe batean berraurkitzera gonbidatuko dute.



FESTA AURREKO KALEJIRA- PASAIA

NON: SAN PEDRO
NOIZ: EKAINAK 21

Pasaiaiko Udalak ekitaldi berezia antolatu du jaiei hasiera emateko. Bihar, ekainaren 21ean, 12:00etan, San Pedroko Herriko plazan izango da ekitaldia, eta horretan parte hartuko dute lau barrutietako kultur munduko hainbat ordezkari. Ekitaldia 11:50ean hasiko da erraldoi eta buruhandien kalejira batekin, Pasaiaiko musika taldeek lagunduta, Udal Aretotik (Erti) Herriko Plazara.

Kalejiraren erritmoan iritsiko dira 12:00ak aldera parte-hartzaileak Herriko Plazara. Bertan musika, dantzak eta sorpresak izango dira Pasaiaiko kultur taldeen eskutik.

Horrela emango zaie hasiera aurtengo jaiei. Hain zuzen ere, jaiek data hauetan izango dira:

- San Juan: ekainak 23-24
- San Pedro: ekainak 26 - 30.
- San Fermin (Antxo): uztailak 4 - 8.
- Karmenak (Trintxerpe): uztailak 11 - 16.
- Santioak (Donibane): uztailak 24-31.